

## HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

### 2025eko urriaren 23a

|                       |    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Kontseilarien kopurua | 15 | Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, urriaren hogeita hiruan, arratseko zortzietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko urriaren 16an afixatua izan zen eta 2025eko urriaren 16an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen. |
| Hor zirenak           | 14 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Bozkatzaileak         | 15 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|                       |    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |

**Hor zirenak:** ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, Betti, jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

**Ahalordea(k):** DEGUIRAUD Hélène andereak ahalordea emana zakon BIBES Jean-Paul jaunari

**Falta zirenak:**

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

#### Aipagaiak

- Aurrekontu nagusiari buruzko 2. aldaketa erabakia: TE64ren zor kitatzea eta bizilekua berritzeko laguntzak
- Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari "polizia-isunen" dirulaguntzen galdatzea
- Elgarrekin Artatu SISari osasun zentroko telefono gastuen fakturatzea
- 2025-2026 ikasturterako eskolako kantinarako dirulaguntzen luzatzea familientzat
- Euskal Elkargoarekin "Chêne 2" hitzarmenaren izenpetzea (ikuskatze energetikoak herriko eraikinetan)
- Lur trukaketak (Anhauze) eta lursailen eskualdatzea (partikularrak) Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoarekin
- Hilen orotarriaren lekuz aldatzea
- Gai orotarik

#### 0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko buruilaren 29ko bilkuraren bilduma onartu du.

#### 1- 2025-47 DELIBEROA- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO 3. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak jakinarazi du beharrezkoa dela aurrekontua aldatzea berritze energetikorako laguntzak ekipamendu laguntza batekin nahas baitaitezke, eta hauek 20422 kontuan sar daitezke. Gainera, amortizazioak nahitaezkoak dira 204 kontuan sartu gastuetarako.

*2025eko urriaren 23ko bilduma*

## INBESTIMENDUA

| Gastuak                                  |                   | IRABAZIAK                                        |                  |
|------------------------------------------|-------------------|--------------------------------------------------|------------------|
| Artikulu-operazioa                       | Zenbatekoa        | Artikulu-operazioa                               | Zenbatekoa       |
| 20422 (204) – Eraikinak eta instalazioak | 2.000.00 €        | 021: Funtzionamendu sailaren diru-transferentzia | 2.000.00 €       |
|                                          |                   | 021: Funtzionamendu sailaren diru-transferentzia | -2.000.00 €      |
|                                          |                   | 280422 (040)                                     | 2.000.00 €       |
|                                          | <b>2.000.00 €</b> |                                                  | <b>2 000.00€</b> |

## FUNTZIONAMENDUA

| Gastuak                           |                   | Irabaziak                |                   |
|-----------------------------------|-------------------|--------------------------|-------------------|
| Artikulu-operazioa                | Zenbatekoa        | Artikulu-operazioa       | Zenbatekoa        |
| 023: Biramendua inbertsio sailera | 2.000.00 €        |                          |                   |
| 023: Biramendua inbertsio sailera | - 2.000.00 €      |                          |                   |
| 65741: Garbiketa                  | - 2.000.00 €      |                          |                   |
| 681: amortizazio diru-zuzkidura   | 2.000.00 €        |                          |                   |
|                                   | <b>0.00€</b>      |                          |                   |
| <b>GASTUAK OROTARA</b>            | <b>2.000.00 €</b> | <b>IRABAZIAK OROTARA</b> | <b>2.000.00 €</b> |

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONTZAT eman ditu** gorago aipatu aurrekontuaren aldaketak

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **3 – 2025-48. DELIBEROA - URDOZEKO BIDEAREN SENDOTZEKO OBRAK – DIRU ZUZKIDURAK POLIZIA ISUNETAN HARTZEKO GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi dio Herriko Kontseiluari 2025eko urtarrileko eta otsaileko aro gaiztoarengatik, Urdozeko auzoko errepidea lehertu dela eta hodiak eta estaldura andeatuak direla.

Beraz, beharrezkoa da hodiak ordezkatzera eta estaldura berriz egitea. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea eginen diola departamenduari.

Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **34 555.26 €-koa da (BEZa gabe).**

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** Urdoze auzoko errepidean obrak egitea
- **ONARTU du 34 555.26 €-ko** (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua

2025eko urriaren 23ko bilduma

- **GALDATU** dio departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 14  
 Bozkatu dutenen kopurua: 15  
 ALDE: 15  
 KONTRA: /  
 ABSTENTZIOAK: /

### **3 – 2025-49. DELIBEROA - IRUBEKO BIDEAREN SENDOTZEKO OBRAK – DIRU ZUZKIDURAK POLIZIA ISUNETAN HARTZEKO GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi dio Herriko Kontseiluari 2025eko urtarrileko eta otsaileko aro gaiztoarengatik, **Irube auzoko** errepidea lehertu dela eta hodiak eta estaldura andeatuak direla.

Beraz, lurreko euri-uren aterabidea berriz egin behar da errepidean, eta estaldura ere. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea egingen diola departamenduari.

Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **34 664.12 €-koa da (BEZa gabe).**

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU** du Irube auzoko errepidean obrak egitea
- **ONARTU** du **34 664.12 €-ko** (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
- **GALDATU** dio departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 14  
 Bozkatu dutenen kopurua: 15  
 ALDE: 15  
 KONTRA: /  
 ABSTENTZIOAK: /

### **4 – 2025-50. DELIBEROA - BELEXIKO BIDEAREN SENDOTZEKO OBRAK – DIRU ZUZKIDURAK POLIZIA ISUNETAN HARTZEKO GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi dio Herriko Kontseiluari 2025eko urtarrileko eta otsaileko aro gaiztoarengatik, Belexi auzoko errepidea lehertu dela, arroila andeatua dela, arla sakon bat agertu dela eta hori lanjer bat gehiago dela.

Beraz, beharrezkoa da arla horretan hodiak ezartzea eta sendotzea drainatze-harriak ezarriz, eta estaldura berritzea. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea egingen diola departamenduari.

Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **30 266.86 €-koa da (BEZa gabe).**

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU** du Belexiko bidean sendotze obrak egitea

*2025eko urriaren 23ko bilduma*

- **ONARTU du 30 266.86 €-ko** (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
- **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 14  
 Bozkatu dutenen kopurua: 15  
 ALDE: 15  
 KONTRA: /  
 ABSTENTZIOAK: /

## **6 – 2025-51. DELIBEROA – BARANDEN ORDEZKATZEA HARITZALDEKO BIDEKO LAMOTA ZUBIAN - DIRU ZUZKIDURAK POLIZIA ISUNETAN HARTZEKO GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2021ean egitura bisitatu ondoan, eta 2024an CEREMAK kontratatu ikerketa-bulego baten bisitaren ondotik, beharrezkoa dela baranda ordezkatzeko, markestua eta andeatua baita. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herriko egituren mantentzeko eta konpontzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea eginen diola departamenduari.

Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **4 935 €-koa da (BEZa gabe).**

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** Lamota zubiko baranden aldatzeko obrak egitea
- **ONARTU du 4 935 €-ko** (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
- **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 14  
 Bozkatu dutenen kopurua: 15  
 ALDE: 15  
 KONTRA: /  
 ABSTENTZIOAK: /

## **7 – 2025-52. DELIBEROA – MANTENTZE ETA KONPONTZE OBRAK HARITZALDEKO BIDEKO LAMOTA ZUBIAN - DIRU ZUZKIDURAK POLIZIA ISUNETAN HARTZEKO GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA**

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2021ean egitura bisitatu ondoan, eta 2024an CEREMAK kontratatu ikerketa-bulego baten bisitaren ondotik, egiturak higadura bat duela ostiko-zutabeen. Beharrezkoa da egituraren juntura guziak berriz egitea eta estaldura ere. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herriko egituren mantentzeko eta konpontzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea eginen diola departamenduari.

Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **8 582.15 €-koa da (BEZa gabe).**

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** Lamota zubiko mantentze eta konpontze obrak egitea
- **ONARTU du 8 582.15 €-ko (BEZa gabe)** estimazio-aurrekontua
- **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

### **8-2025-53. DELIBEROA - ELGARREKIN ARTATU SISARI OSASUN ZENTROKO TELEFONO GASTUEN FAKTURATZEA - 7.10 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio alokairu-kontratu bat izenpetu dela Herriko Etxearen eta "Elgarrekin Artatu" SISaren artean 2024ko maiatzaren 1ean. Halaber, oroitarazi du aipatu alokairu-kontratuko 6. artikulua arabera telefono-gastuak Osasun Zentroak ordaindu behar dituela.

Jaun auzapezak oroitarazi du huts baten ondorioz igogailuko telefono-gastuak Herriko Etxeari fakturatu zaizkiola. 2025erako, gastu horiek 450 €-koak dira, eta Herriko Kontseiluari proposatu dio SISak zenbateko hori ordain diezaion Herriko Etxeari.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** SISak 450 €-ko faktura ordaintzea
- **GALDATU dio** jaun auzapezari ordainketa galde hori egitea "Elgarrekin Artatu" SISari.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

### **9-2025-54 DELIBEROA – 2025-2026 IKASTURTERAKO ESKOLAKO KANTINARAKO DIRULAGUNTZEN LUZATZEA FAMILIENTZAT - 7.10 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak Herriko Etxeari oroitarazi dio 2024ko maiatzaren 13ko delibero bidez 0,75 €-ko dirulaguntza eman zitzaiola Donosteari (eskola eta kolegioa), Ikastolari, Pujo kolegio publikoari eta MEEK kolegioari 2024-2025 ikasturterako.

Jaun auzapezak Kontseiluari proposatu dio neurri horren luzatzea 2025-2026 ikasturterako.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** 2025-2026 ikasturterako eskolako kantinarako 0,75 €-ko dirulaguntza luzatzea familientzat

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **10-2025-55. DELIBEROA – EUSKAL ELKARGOAREKIN “CHÊNE 2” HITZARMENAREN IZENPETZEKO BAIMENA 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du Euskal Hirigune Elkargoak bere Lurraldeko Klima Airea Energia Plana (LKAEP) onartu zuela 2021eko ekainean, baita ere bide-orria klima aldaketei buru egiteko Ipar Euskal Herri erresiliente baten alde eta energia-kontsumoen murrizteko errotik engaiatua den Ipar Euskal Herriaren alde. Dispositibo horiei esker kide eta partaide diren herriei zerbitzu eskaintza gero eta aberatsagoa eskaini zaie, lurralde osorako proposatzeko xedez.

Europako ELENA (European Local Energy Assistance) programaren kariatara eraman ekintza hauen segidan, Euskal Hirigune Elkargoak bere eta partaide dituenen ondare eraikiaren energia eraginkortasunarekiko eta berritzearekiko duen engaiamendua segitu nahi du. Zehazki, horrek erran nahi du edozein obra egin aitzin energia-ikuskaritza egiten segitu behar dela eta Euskal Elkargoko Higiezinaren Energia gida-eskema garatu.

Operazio horien egiteko dirulaguntza bat ukaiteko, Euskal Hirigune Elkargoak bere burua aurkeztu du “Fonds CHÊNE: 1. eta 2. denboraldiak” deitu proiektu-deialdirako, Energia Eraginkortasunerako Lurralde Kolektibitateen Ekintzen programaren kariatara, Energia Aurrezteko Agiri dispositiboak finantzaturik.

Aipatu behar da programa hori Kolektibitate Emaileen eta Zuzeneko Kudeatzaileen Federazio Nazionalak (KEZKFN) eramaten duela, eta Euskal Hirigune Elkargoa horren kide dela; eraikin publikoen energia-berrikuntzarekin eta eraginkortasunarekin lotu estatu eta klima erronkei ihardesten die.

Funts horren helburu nagusia da kolektibitateen eraikin publiko tertziarioen energia-eraginkortasunari lotu ekintzen kostuak finantzatzea lurralde-proiektuak mutualizatzen dituzten eragile publikoentzat, proiektu horiek kolektibitateen energia-kontsumoa murrizteko ekintzak ahalbidetzen baitituzte. Aurreikusten da Funts horren bidez eman dirulaguntzek ekintza zehatzak sortuko dituztela energia-kontsumoa murrizteko programa bururatu gabe edo gutienez egingarritasun frogatua duten lan-planak ezartzeko (merkatuen eskuratzeko bereziki).

Euskal Hirigune Elkargoak lortu ditu KEZKFNeko epaimahaiari aurkeztu bi hautagaitzak.

Bigarren hautagaitza horrek partez hau finantzatzen du bereziki:

- "Soiltasuna eta eraikinen energia-eraginkortasunerako" misio-kargudun bat Trantsizio Energetikoaren eta Planifikazio Ekologikoaren Idazkaritza Nagusiaren (TEPE IN) baitan. Misio-kargudun hori arduratuko da Euskal Hirigune Elkargoko Higiezinaren eta Energia gida-eskemaren finkatzeaz, Euskal Elkargoko higiezinaren ondarearen kudeaketa arrazionalizatzeko emaitza energetikoa optimizatuz, eta orokorkiago, desmarxa horretan engaiatu nahi duten herriak lagunduz eta kontseilatuz kontsumoen, gastuen eta berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko baita ere energia-emaitzei lotu dirulaguntzen lortzeko;
- Euskal Hirigune Elkargoko Higiezinaren eta Energia gida-eskemaren kanpoko ikerketak eta herrietako eta Euskal Elkargoko eraikinen energia-ikuskaritzak.

Euskal Hirigune Elkargoak ekintza tekniko eta administratiboak koordinatuko ditu herrien izenean haien ikuskaritzaren izenean. Bestalde, energia-ikuskaritza horien obragintza bermatuko du eta finantza-karga orokorra bere gain hartuko du. Horretarako, lortu dirulaguntza guziak atxikiko ditu. Herri ondareari buruz egin ikerketetarako ordaintzeko gelditzen dena Euskal Hirigune Elkargoak finantzatuko du.

*Ikusirik 2021eko agorrilaren 22ko 2021-1104 Legea, klima nahasmenduaren kontra borrokatzeko eta erresilientzia indartzen duena bere ondorioen aitzinean;*

*Ikusirik Eraikuntza eta Bizitegien Kodea, eta bereziki L. 174-1 artikulua;*

*Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki L. 5211-10 eta L. 5216-5 artikulua;*

*Ikusirik 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefetaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren sorkuntzari buruzkoa;*

*Ikusirik 2018ko abenduaren 16ko Elkargoko Kontseiluaren deliberazioa, 2018ko urtarrilaren 1etik goiti ingurumenaren eta bizi ingurumenaren babeserako eskumena betetzea erabaki duena: aire-kutsaduraren kontra egiteko; harrabots trabagarrien kontra borrokatzeko; Euskal Hirigune Elkargoko lurralde osoan energia-eskaera kontrolatzeko ekintzak sustengatzeko;*

*Ikusirik 2018ko abenduaren 15eko Elkargoko Kontseiluaren deliberazioa, energia eta ekologia trantsizioari egin ekarpenari buruzko hautuzko eskumenari buruz;*

*Ikusirik 2020ko uztailaren 31ko Elkargo Kontseiluaren deliberazioa, zeinaren bidez eskumenak eman baitira Kontseilu Iraunkorrari, bereziki Europako, estatuko, eskualdeko eta tokiko finantzamendu programen kariatara finkatu proiektuen finantzamendu planak onatzat emateko", eta*

*"Euskal Elkargoko politiken kariatara, hainbat erakunderekin (kolektibitateak eta erakunde publikoak barne) kontratuak, hitzarmenak, lankidetzak-gutunak hitzartzea, dauden kontratuetarako gehigarriak eta baliogabetzeak erabakitzea";*

*Ikusirik 2021eko ekainaren 19ko Elkargo Kontseiluaren deliberazioa, zeinaren bidez onartu baita Lurraldeko Klima Aire Energia Plana;*

*Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren 2021-2026 Lurralde Proiektua, 2022ko uztailaren 9ko Elkargo Kontseiluaren deliberazio bidez onartua, bereziki "Ipar Euskal Herri erresiliente baten alde: gure baliabideak zaintzea" 1. ardatzeko "energia positiboko lurralde bihurtzea" 1. engaiamendua; gure baliabideak zaindu".*

*Ikusirik Euskal Elkargoko lehendakariaren 2024ko apirilaren 3ko DC2024\_120 erabakia, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Hirigune Elkargoa sartzeko Kolektibitate Emaileen eta Zuzeneko Kudeatzaileen Federazio Nazionala;*

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan

- **ONTZAT eman du** ACTEE programako epaimahaiak "Fonds Chêne, 2. denboraldia" deialdiaren kariatara atxiki hautagaitza-dosierak obratzeko;
- **ONARTU DU** partaidetza-hitzarmena egitea KEZKFNrekin, irabazi duen proiektua obratzeko eta Chêne 2 programaren hartzaile diren herriei hitzarmena egitea, programan jakinarazi ekintzak egiteko;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkari deliberazio honen betetzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

Kargutari diren kideen kopurua: 15  
Hor zirenekin kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

## **10- 2025-56 deliberazioa – POCTEFA PROGRAMAREN KARIETARA, "MUGAZ GAINDIKO GUNE INTEGRATUAGO BATEN ALDEKO GOBERNANTZA HOBEA" PROIEKTU DEIALDIRAKO DOSIER BATEN AURKEZTEKO BAIMENA – 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak azaldu du:

POCTEFA KINTONDARE proiektuaren kariatara, partaide hauek elkarrekin ari dira lanean mugaz gaindiko gobernantza egituratzeko:

- Ipar Euskal Herrian: Baigorri, Banka eta Urepele, baita ere Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoa;
- Hego Euskal Herrian: Eugiko eta Zubiriko kontzejak eta Esteribarko udala.

2025eko urriaren 23ko bilduma

Partaide horiek KINTOAN BARNA Lurralde Lankidetzarako Europar Elkargoa (LLEE) sortzen ari dira, mugaz gaindiko lurralde zabaldu batean, gorago aipatu partaideez gain:

- Aldudeko herria,
- Baztan, Erroibar, Auritz eta Luzaideko udalak.

Karia horretara, proiektu deialdi bat irekia da 2025eko azaroaren 19a arte: "Gobernantza hobea mugaz haraindiko eremu integraturako". Deialdi horren helburua da mugaz gaindiko gobernantza egiturak plantan ezartzen laguntzea, hauek finantzatzuz:

- Langile gastuak,
- Eta beste gastu finko batzuk (gastu administratiboak, funtzionamendu eta joan-etorri gastuak), langile gastuen % 40ko mugan.

Gehienezko aurrekontua 200 000 €-koa da.

Bizkitartean, KINTOAN BARNA LLEE ez baita oraino juridikoki sortua, ezin du zuzenki deialdi horri erantzun.

Finantzamendu parada hori ez galtzeko eta abiatua den lanaren jarraikitasuna bermatzeko, proposatzen da Urepeleko Herriko Etxeak, etorkizuneko LLEEren partaideen buru gisa galdea aurkeztea partaide guzien izenean.

LLEE ofizialki sortu ondoan, proiektuaren eta dagozkion kredituen administrazio transferentzia egingen da KINTOAN BARNA LLEE proiektu eramailea bilaka dadin.

Deliberatu ondoan, biltzarrak:

- **ONARTU du** dossier baten aurkeztea POCTEFA programako "Gobernantza hobea mugaz haraindiko eremu integraturako" proiektu-deialdirako;
- **BAIMENA eman dio** Urepeleko Herriko Etxeari, buru gisa, LLEeko partaide guzien izenean, kandidatura aurkezteko partaide guzien izenean;
- **ONTZAT eman du** proiektuaren eta dagozkion kredituen administrazio transferentzia egitea KINTOAN BARNA LLEEren probetxuko, hori sortu bezain laster, eramaile ofiziala izan dadin;
- **BAIMENA eman dio** lehendakariari beharrezko dokumentu oro izenpetzeko erabaki honen obratzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

## **11-2025-57 DELIBEROA - LUR TRUKAKETAK ANHAUZEKO HERRIAREN ETA BAIGORRIKO IBARREKO MENDI ELKARGOAREN ARTEAN - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du 2025eko irailaren 22ko 44. deliberoaren bidez, Baigorri Ibarreko Mendi Elkargoak Vincent OCAFRAIN jaunari Anhauze herrian kokatu B 838 lursaila (1 area) eta B 843 lursaila (3 area eta 24 zentiarea) utzi dizkiola.

Ordainez, OCAFRAIN jaunak Mendi Elkargoari Anhauzeko herrian den B 313 lursaila utzi dio (29 area eta 66 zentiarea).

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdatu dio lursail truke horiek onartzea;

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU** du gorago aipatu lursailen trukaketa

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

## **12-2025-58 DELIBEROA - LUR TRUKAKETAK BAIGORRIKO HERRIAREN ETA MICHEL ERNAGA JAUNAREN ARTEAN - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du 2025eko irailaren 22ko 46. deliberoaren bidez, printzipiozko adostasuna eman zela, Ernaga jaunaren eta Mendi Elkargoaren arteko lursailen trukeari buruz, Mendi Elkargoaren egoitza berriaren ondoan aparkaleku bat sortzeko xedez.

Ernaga jaunak Urepelen kokatu C 143 lursaila emanen luke (3 area eta 70 zentiarea) eta ordainez Mendi Elkargoak Urepeleko herrian kokatu C 648 lursailaren parte bat emanen lioke, bere etxeari atxikia baita. Zehaztu da egur lote bat emanen zaiela kitorik Setoain familiako 4 ondokoei.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdatu dio lursail truke horiek onartzea;

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU** du gorago aipatu lursailen trukaketa

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

## **13- 2025-59 DELIBEROA - HILEN OROITARRIA LEKUZ ALDATZEA ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA**

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio herriko hilen oroitarria Gaineke karrikaren eta Mixeleneko bidearen arteko bihurgunean kokatua dela.

Eremu publikoan iragaten diren zeremoniak lanjerosak baitira eta kamioi astun batzuek monumentu horren oinarria jadanik andeatua baitute, proposatu du hilen oroitarria Herriko Etxeko aparkaleku sartzera lekuz aldatzea (Gaineke karrika).

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,  
*2025eko urriaren 23ko bilduma*

*Proiektua aurkeztu ondoan, FNACA elkarteak (Jean ORONOS da lehendakari) eta CPG-CATM Elkarteak (Pierre MOCHO da lehendakari) 2025eko urriaren 13an eman aldeko iritzia ikusirik,*

- **ONARTU du** hilen oroitarria lekuz aldatzea gorago aipatu eta atxikirik den planoan bezala.
- **ARDURA EMAN dio** auzapezari desmartxa eta formalitate oro egiteko delibero honen gauzatzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOAK: /

**AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:**

/

**Gai orotarik**

!

**Hor zirenen zerrenda:**

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, Betti, jauna, , CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Bilkuran hartu deliberoak 47tik 59ra zenbakituak ziren.

|                                |                                           |
|--------------------------------|-------------------------------------------|
| <u>Auzapezaren izenpedura:</u> | <u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u> |
|                                |                                           |